

PERTSONAIAK:

- Begoña: protagonista, ikaslea.
- Jose Luis: Begoñaren aita, kazetaria.
- Ana: Begoñaren ama, irakaslea.
- Loli: Anaren laguna, neskamea.
- Eduardo: enpresaria.
- Mikel: Forjaseko ordezkaria eta Begoñaren mutil laguna.
- Javier eta Blanka: Mikelen kideak.

OROKORRAK

- Nolakoak ziren asanbladak? Nola antolatzen ziren? Nortzuk hartzen zuten parte?
- Nola deskribatuko zenituzke garaiko pertsonak?
- Hasieran eta filmean zehar agertzen diren pertsonaia historikoak nortzuk ziren?
[Francisco Franco, Juan Carlos I, Adolfo Suárez, Martín Villa, Sofía Greziakoa.](#)

ZEHAZAK

- **6.43 min:** Nortzuk ari dira eztabaidatzen?
[Alderdi politikoek eta sindikatuen artean eztabaidatzen ari dira.](#)
- **7.25 min:** Zer esaten du Mikelek bere hitzaldian? Zeren alde egiten dute borroka?
[Mundu berri baten alde borrokatu behar dutela dio. Honako hau oihukatzen du: “*El pueblo unido jamás será vencido*”.](#)
- **8.20 min:** Nortzuk daude bilduta?
[Enpresarioak bilduta daude.](#)
- **8.20 min:** Zenbat denbora daramate greban langileek?
[Bi hilabete.](#)
- **9.11min:** Zeintzuk dira langileek eskatzen dituzten hobekuntzak?
[Astero 40 ordu lan egitea eta larunbatetan jai izatea.](#)
- **9.25 min:** Nola kontrolatu nahi dituzte greba egiten duten langileak?
[Komunikabideak manipulatu kontrolatu nahi dituzte.](#)
- **12.37 min:** Eduardok Anaren senarrari zer eskaini nahi dio?
[Lan bat eskaini nahi dio, bera kazetaria delako.](#)
- **13.49 min:** Bego eta Mikel paretan grebaren inguruko pintada bat egiten ari zirenean polizia heldu da, baina ez ditu harrapatu. Zergatik?
[Kotxean sartu eta musukatzen hasi direlako.](#)
- **16.09 min:** Begoña familiarekin afaltzen ari denean grebaren inguruko zein nahi partekatzen du?
[Grebaren ondorioz, mundu berri eta bidezko bat sortzea da bere asmoa.](#)

- **17.min:** Nongoa zen garaiko migrazioa Euskal Herrian?
Loli pertsonaiaren azentuari erreparatu behar zaio. Extremadura, Galizia, Gaztela eta Errioxako migrazioa zen nagusi Gasteizen 1976an.
- **17.33 min:** Zergatik sartu dute Loliren senarra (Esteban) kartzelan?
Greba egitera lankideak bultzatzeagatik.
- **17.49 min:** Zeren beldur da Loli?
Senarra 5 urteko kartzela zigorra jasotzea eta bertan tratatu txarrak jasotzea.
- **21 min:** Zein fabore eskatu dio Anak Eduardori?
Loliren senarra kartzelatik ateratzeko laguntza.
- **27.min:** *Parece de la social*. Zer zen “la social”?
- **27.min:** Zer da erresistentzia kutxa? Zertarako erabiltzen zen?
Greban ez zeuden langileen soldatekin osatzen zen diru aurrezkia, greban zeuden langileen familiekin partekatzen zena.
- **28.11 min:** Zenbat zen garai horretan langileen hileko soldata?
10.000 pezeta inguru.
- **29.min:** Zeintzuk ziren eskatzen zituzten hobekuntzak?
10.000 pezetetako soldatak, segurtasun neurriak, osasun baldintzak hobetzea.
- **32. min:** Zer eskaintzen dio Eduardok José Luisi? Zerekin mehatxatzen du?
Iparraldeko irrati kateen arduraduna izatea. Horretarako, berri faltsuak zabaltu beharko ditu langileen artean liskarrak sortzeko. Ez badu baietz esaten, bere alaba atxilotua izan daitekeela esaten dio, “greba bultzatzea” eragotzita.
- **34.min:** Emakumeen manifestaldian zer ohikatzen dute?
Somos obreras, ¡únete!, Detenidos, ¡libertad!
- **40.min:** Zer gertatzen zaio Estebani, Loliren senarrari, atxilotzen dutenean?
Zenbatekoa izan daiteke zigorra?
Batetik, torturatzen dutela eta, bestetik, salaketa faltsuen biktima izaten dela.
Kartzela zigorra 5 urtekoa izan daiteke.
- **43.min:** Zer esan dio Ministroak Arabako Gobernadoreari telefonoz?
“La huelga debe fracasar cueste lo que cueste”, “España es ahora un polvorín y la mecha está en Vitoria” eta “La situación tiene que controlarse como sea”.
- **50.min:** Zeintzuk dira filmean aipatzen diren langile auzoen izenak?
San Cristobal, Zaramaga, Ariznabarra, Txagorritxu eta Ali.
- **52.min:** Zeintzuk dira emakumeen eskaera zehatzak?
Haur eskolak dohainik izatea, soldatak igotzea eta antisorgailuak hobetzea.
- **52.min:** Zer oihukatzen zuten emakumeek?
“Obreras y estudiantes, todas juntas adelante”.
- **56.35min:** Patronalaren eta gobernadorearen estregia zein da?

Kalean polizia asko egotea eta komunikabideetan grebaren inguruko informazio gutxi eta faltua zabaltzea. *“Fuerza en la calle y silencio en los medios”*

- **56.min:** Zenbat polizia prest dituela esaten du gobernadoreak?
Bostehun. *“Tengo 500 hombres preparados en la calle”.*
- **59.min:** Zer esan nahi du poliziak Begoren inguruan esaten duen hurrengo esaldiarekin: *pasar por el forro?*
Polizia Bego bortxatzeko prest dagoela.
- **1h.06min:** Noiz izan zen martxoaren 3an lehenengo bala zauritua?
Goizean egondako istiluetan.
- **1h.07min:** Zergatik deitu du jendeak haserre irratira martxoaren 3an?
Irratitik zabaltzen ari diren mezua gezurra delako.
- **1h.08min:** Elizaren ingurura nola hurbildu zen jendea?
Jendea modu baketsuan eta lasai hurbildu zen elizara.
- **1h.09min:** Zer esan nahi du *“estamos protegidos por el concordato”*?
Elizak Estatuarekin zuen akordio baten arabera, polizia ezin zen eliza barruan sartu.
- **1h.09min:** Poliziaren grabaketak zergatik entzuten dira irratian?
Garai horretan kate edo frekuentzia partekatzen zutelako poliziak eta irratiak.
- **1h.09min:** Zein agindu jaso zuen poliziak? Zer aurreikusi zuten?
Armak erabiltzeko agindua jaso zuen poliziak eta alde zuzenetik bazekien ondorioak larriak izango zirela. *“Usar las armas”/“Esto va a ser una carnicería!”*
- **1h.13min:** Grebaren jarraipena nolakoa izan zen langileen artean?
Jarraipena zabala zen, eliza beteta zegoen eta inguruko plaza ere bai.
- **1h.13min:** Zer bota zuen poliziak eliza barrura bilera bertan behera gelditzeko?
Poliziei ea kargatzen ari diren galdetzen dietenean zer erantzuten dute?
Poliziak poteak gas negar-eragile poteak bota zituen eliza barrura eta topera kargatzen ari zirela erantzun zuten.
- **1h.17-21min:** Minutu hauetan polizien elkarrizketak entzuten dira, zer esaten dute?
“Esto ha sido una batalla campal”, “Hemos contribuido a la paliza más grande de la historia”.
- **1h.21min:** Nola baloratzen du polizien nagusiak gertatutakoa?
“Buen servicio”.
- Martxoaren 3ko grebaren egunean zenbat zauritu edo hildako egon ziren?
100 zauritu inguru egon ziren, 3 hildako egunean bertan eta aurrerago beste bi hildako.
- Martxoaren 3an hildako eta zauritutakoen ondorioz arduradunik epaitu al da?
Gaur egun, oraindik, ez da epaiketarik egon eta arduradunak libre daude.